

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIZAHARREKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroren zerga ordenantzari**

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 13ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen eguneko arretarako landa zentroren prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantza onestea.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Argitara ematen da hau, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Urizaharra, 2021eko uztailaren 14a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*